

IHOBE-REN HORNITZAILE ERAKUNDEEN FOROA 2026

Posted on 04/02/2026 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Ekintza klimatikoa](#), [Ekonomia zirkularra](#), [Trantsizio klimatikoa eta energetikoa](#)

Ihobe, Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoak, urtero elkarriketa irekitzen du bere balizko hornitzaile diren erakundeekin, gardentasunean, lankidetzan eta elkarrekiko konfiantzan oinarritutako epe luzeko harremanak sendotzea ahalbidetuko duten estrategiak eta prozesuak garatzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan, Naiderrrek ekitaldian parte hartu du, Ihoberekin dugun lotura estua berriro ere indartuz. Izan ere, Ihobe gure bezero nagusietako bat da, eta harekin etengabe lan egin dugu azken 20 urte baino gehiagoan. Topagune honek aukera ematen digu Eusko Jaurlaritzak ingurumen arloan dituen beharrak, itxaropenak eta lehentasun politikoak bertatik bertara jasotzeko, eta, aldi berean, Ihoberi zerbitzua emateko orduan ditugun indarguneak, gaitasunak eta potentzialak ezagutarazteko.

Eskerrik asko Ihobeko lantalde osoari, Naiderrren eta Euskadiko klima-ekintzari, ekonomia zirkularrari eta ingurumen-plangintzari egiten diogun ekarpenean berriro ere konfiantza jartzeagatik.



